

Arrasate

P R E S S

1996ko
Irailak 6
330. zenb.

USTEAK USTE

Ander Etxeberria

KULTURA

**Leze Txikin
indusketak**

KIROLAK

**Mondra 96-97
denboraldiko
aurpegiak**

IRITZIA

Pako Robles

Hiper-Eroski

**Dendari txikien
etorkizuna Hiper-aren
aurrean**



Baduzu euskararen aita-amapuntakorik?

- Euskalduntze maila guztiak.
- Alfabetatze.
- Ikastaro bereziak:
 - Enpresa taldeak
 - "Benetan" (Euskara ikasteko programarik errazena, zure ordutegira egokitua).

MATRIKULA-EPEA ZABALIK
Irailaren 2tik 17ra arte.

PLAZA MUGATUAK.

Beka sistema daukagu!



Egizu! Izango duzu nork lagundu!

ARIMAZURI, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)

Telefonoak: 79 70 77 / 79 77 88



ARRASATEKO UDALA

Udal Euskaltegia ■

Eman goraintziak Pitoteri

Bizitzak heriotza dakar, eta alderantziz, heriotzak bizitza. Naturaren etenbako dantza da, pozzgarria bezain mingarria, egi mikatz bezain gozoa. Ezin bata bestea barik ulertu. Alaitasuna eta tristezia moduan.

Alai joan oporretara, gogotsu, eta itzuleran malko gazien zipriztinak, bizitzak heriotza ekarri duelako. Berriro ere edertasunetik luzatu du bere eskua heriotzak, mendi magal elurtuetatik. Edertasunetik heriotza, nola liteke? Hainbat zalantza, hainbat galdera... Etenbarik bila gizakumea baina ezin ulertu guztia.

Mendi itzulerak tartean Aretxabaleta pozarren ikusi izan zenuen behin baino gehiagotan, Miren. Zure mendi itzuleran, ostera, triste hartu zintuen, mutu, lore goibelen lurrinaz atondua. Eta tristezia hanka luzez jantzi zitzaigun. Berba guztiak soberan ziren orduan. Orain ez, orain, apurka, aterabide bila ari dira.

Laster mendian elkartuko gara berriro,

eta irrifarre gozoz elkar agurtuko dugu. Nola ba bestela? Malda zuri batek urrundu zintuen gugandik, beste batek hurbilduko zaitu, baina ez behin bakarrik, maldan gora arnas estuan goazen bakoitzean baizik.

Ah! eta Pitote ikusten baduzu, eman goraintziak, Udalaizten geratu zen domekan eta oso urrun ez zaudete, horregatik diotsut. Domeka arratsalderen batean Kurtzeberrirantz doala ikusten baduzu ezaiozu ezetz, Atxabalpe atzean geratu zaiola. Polita izan zen, Miren, Pitoterena Udalaizt puntan, oso polita; maitasunak eta begiruneak mojitoz egin zuten topo. Tira, ea ardiaren arranek Marca lasai irakurtzen uzten dioten behintzat. Bestetik, egun lainotsu horietako batean, Udalaizt tontor inguruan irratiren bat entzuten baduzu, lasai, ez izan beldurrik, Pitoteren irratia baita.

Eta zuri, ba horixe, ikusiko gara Kurtzeberrin. Bitartean, ondo pasau.

XABIER LETONA

ZATOK GUREKIN!
Irailak 6, 7, 8
GATZAGAKO JAIK!!!
ZUHAITZ JATETXEA



Memesa
79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro eta Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leiritz Bertsio eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopl, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Aston, Hartz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Ollasagasti, Alazne Portu, Ertu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



Azala: Golo Arana.

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

.....
Baliarraindik

I datzi honen bidez gure hase-
 rrea adierazi nahi genioke
 irakurle orori aurten gertatu
 zaiguna adieraziz.

Herri jaietarako, abuztu-
 aren 16rako konkretuki, Bittor
 Aiaperen kantaldia iragarrita
 zegoen gaueko 11etarako.

Kantaldia aurrera eramate-
 ko soinu ekipoa alokatu genuen
 Arrasateko Soinua eta Donos-
 tiako Sonotec etxeekin. Etxe
 hauek gaueko 9etarako dena
 prest egongo zela agindu zigu-
 ten egun berean. Gaueko 9ak,
 10ak, 11ak eta 12ak... eta inor
 ageri ez. Hori bai, Bittor Aiape
 kantaria 9etarako etorri zen.
 Jendea inguruan, kioskoa hu-
 tsik eta hura zen egoera...

Genituen telefonoetara
 deitu eta erantzunik ez, azke-
 nean... gaueko 12.15etan hit-
 zegitea lortu ondoren, hauxe
 izan zen emandako arrazoia:
 beste toki batean gaude eta ez

gara joango, esan iezaiozue
 jendeari gezurra, istripua izan
 dugula.

Bai, bai... ondo irakurri
 duzue, horixe izan zen entzun
 behar izan genuena.

Kantaldia inguratu zen jen-
 deari gertatu zena garbi askoesan
 ondoren Bittor etxera joan zen
 ezer egiterik izan gabe.

Soinua eta Sonotec etxeei
 esan nahi diegu, hori ez dela
 giza legez jokatzeara diru gosez
 baizik, herri txikiak ez gaude-
 la alperrik eta aurrerantzean
 aintzakotzat har gaitzatela.

Eta azkenik, bertaratu zen
 jendeari eskerrik asko egoe-
 ra ulertu eta onartu zutelako.

**LEIRE ZUBELDIA ITURRIOZ,
 JAI BATZORDEAREN IZENEAN**

.....

Roberto gogoratuz

Roberto gogoratzean, bes-
 te mondragoetar bi etor-
 tzen zaizkit burura.

Lehena, bere lagun handia
 izandakoa: Zelestino Uriarte,
 eta berarekin batera beste 200
 mondragoetar. 34ko urriko
 iraultzan eta guda zibilean
 Dragoietan ibilitakoak. Belau-
 naldi harekin loturak izan ditu
 Robertok: alde batetik, lotura
 ideologikoak, Pitote gorria,
 komunista izan da. Bestetik,
 ezin dugu ahaztu bere ondo-
 an hainbeste urtetan ibili den
 laguna, Dragoi haietako gizon
 baten alaba dena.

Bigarrena, Felix Likiano,
 anarkista II. Errepublikaren den-
 boratik. Euskadi eta Askata-
 suna hasi zenean, bere lagun-
 tzaile bihurtu zena. Nire ustez
 Felixek ez zuen bere aber-
 tzaletasuna ETArekin aurkitu,
 borrokatzen hasi zenetik bera-
 rekin zeraman.

Beste hainbeste uste dut
 gertatu dela Robertorekin,
 abertzaletasuna borrokatzen
 hasi zenetik zeramala.

JUAN RAMON GARAI

.....

Roberto Sanpedro burkideari

Aspalditikan hasi zinaden
 lagun borrokan bidetik,
 bere nahi gabe ta gezaminak
 ezagutuaz barrutik.
 Zure ahotsa ixildu arren
 bizitza hontako hildotik,
 zure amets eta, asmo guztiak,
 doaz gaur bide onetik.
 Gure bihotza eskerrean ta
 odol gorritz zainetatik.

Arrano beltzez ingurunean
 gogor aritu zerana.
 Euskal Herri askatu eta,
 hobea nahi zenduana.
 Zapalkuntzarik gabeko mundu,
 guretzat etorkizuna.
 Zure lagunak ondo dakigu
 etsaiek nahi ez dutena.
 Zure borrokak egin zaitula
 zihur pakezko gizona.

ARRASATEKO ZUTIK

LORAMENDIN

- Kamisetak
- Prakak
- Txandalak
- Sudaderak
- ...eta abar

%30

BEHERAPENAK!

ZAPATILAK

%20

San Andresen eta Garibaien

Nahikoa futbol eskaintzen dute telebistek?



**Juan Miguel Coronado
Langilea
(27 urte)**

Nahikoa futbol partidu eskaintzen dute telebistek, eta orain larregi emango dutela uste dut. Nik astean partidu bat ikusiko dut baina interes-garria bada.



**Izaskun Jauregi
Etxekoandrea
(55 urte)**

Larregi eskaintzen dute. Niri ez zait futbola gustatzen baina senarrarekin batera igande gauetako laburpena ikusten dut.




**Jose Mari Arzuaga
Jubilatua
(67 urte)**

Futbol askotxo ematen dute telebistaz. Nik bakarrik Realaren eta Athletic-en partiduak ikusten ditut.



**Nieves Pardo
Langilea
(22 urte)**

Abuztuan futbola baino ez dute eman telebistaz eta larregikoa izan da! Gutxiago eskaini beharko lukete.



**Santiago Carmona
Langilea
(43 urte)**

Iruditzen zait futbol larregi botako dutela orain. Niri asko gustatzen zait futbola, eta ahal dudanean ikusiko ditut partiduak.



**Marije Izura
Langilea
(37 urte)**

Ez zait futbola gustatzen eta nire ustez telebistek partidu gehiegi eskaintzen dute. Etxean izaten ditugu eztabaida batzuk futbola dela eta.



**Jose Mari Iturbe
Langabezian
(32 urte)**

Lehen futbolzalea nintzen baina zenbat diru gastatzen duten jakinda orain ez zait hainbeste interesatzen. Telebisten plana ere ez zait gustatu.



**Nagore Almenar
Ikaslea
(19 urte)**

Ez dut telebistaz futbolik ikusten, kirola egitea gustatzen zait eta. Uste dut telebistek futbol larregi eskaintzen dutela.

JUBAR

- Ate eta pertsiana automatikoak
- Automatismok
- Mantenimendua
- Urrunerako aginte-tresnak

Kataide Poligonoa, 18
ARRASATE
Tfnoa: 79 10 20 • Faxa: 79 08 17



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

FELIPE MADINA

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.....	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze Gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria.....	77 03 46
• Espezialitateak.....	77 05 78
	77 12 64
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulanziazki	45 87 44
Udaltzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 58
Eskoriatza	088
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoendako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearendako informazioa	
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterongo liburategia	
Monterron.....	77 01 05
Irratia	
Arrasate Irratia	79 58 77

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 6

Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.

Larunbata 7

Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

Igandea 8

Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

Astelehena 9

Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

Asteartea 10

Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.

Asteazkena 11

Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

Osteguna 12

Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

6 OSTIRALA

• ZINEA

“Misión imposible” 7etan eta 10etan.

• REAGGE-SKA JAI A GAZTETXEAN

6etan errifen zozketa Gaztetxean. 6.30etan fumada erreibindikatiboa (Kanabitsaren legalizazio eta normalizazioaren alde) eta luntxa. 9etan Kontzertua “Ke Rule” Bilboko Reggae taldearen eskutik. A.G.A.K.Ok antolatuta.

• LA CHUSMA TALDEA GATZAGAN

“La Chusma” Arrasateko taldeak Gatzagako Zuhaitz tabernan joko du gaueko 12etan.

• GATZAGAKO JAIK

Arratsaldeko 6etan jaien hasiera. 7etan Dorletan Bederratziturrena. 7.30etan Herri poteoa eta gaueko 12etan “Trabuko” taldearekin dantzaldia.

ARRASATE 96 LITERATUR LEHIAKETAK

Ipuina, poesia eta bertso pape- ren lehiaketa antolatu du AEDk Udalaren laguntzarekin. Lehiaketa honetan Deba Garaian bizi, lan egin edo ikasten dutenek bakarrik har dezakete parte. Maila desberdinetan banatuko dira partehartzaileak adinaren arabera. Lanak aurkezteko azken eguna urriak 30. Helbidea: AED Elkartea, “Arrasate 96” Lehiaketak. Pablo Uranga kalea, 4 behea. 20.500 Arrasate. Era berean komikia, Arrasateko euskararen testigantza, antzerki- gintza eta ikus-entzuzkoen gidoigintza lehiaketak antolatu dira. Hauek aurkezteko azken eguna ere urriaren 30a izango da.

7 LARUNBATA

• ZINEA

“Misión imposible” 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• EXTREMADURAREN EGUNA

Goizeko 10etatik aurrera lagun arteko eguna Landako urte- gian. Bertan jokuak, futbol neurketak eta lehiaketa gas- tronomikoak izango dira.

• KONTZERTUA GAZTETXE- AN

Gaueko 9etan Berlingo “Party Service Overkill” taldearen kontzertua Gaztetxean. Tal- de horrek musika-estilo nahasketa jotzen du, sua eta dantza emanaldiekin. A.G.A.K.Ok antolatuta.

• GATZAGAKO JAIK

Goizeko 9.30etan txirrindulari lasterketa. 11etan herri pote- oa “Jauregi anaiak” trikitila- rien laguntzaz. 12etan txi- rrindulari lasterketako sari banaketa. Eguerdiko 2etan herri bazkaria. 4etan briska txapelketa. 6etan pilota par- tiduak. 7etan Dorletako Ama- birjinaren ohorezko bede- ratziurrenaren amaiera Eskoriatzako eliz koruarekin. Gaueko 11etan bolo txapel- keta eta 11.30etan gaupasa “Trikitixa Kontrairo” eta “Basajaun” taldeen eskutik.

ERGUINGO JAIK

Irailaren 13 eta 14an Erguingo jaiak direla eta, Txatxilpurdi elkarteak hainbat ekintza antolatu du. 13an mahai jolasen txapelketa arratsaldean. Bertan parte hartzeko izena eman Txatxilpurdin.

JOKIN ZAITEGI X. ITZULPEN LABURREN SARIKETA

AEDk antolatutako sariketa honetan edozein pertsonak har dezake parte. Gaia librea. Lehiaketara, munduko edozein hiz- kuntzatatik- gaztelaniatik izan ezik- itzulitako idazlanak aur- kez daitezke. Lanak AED Elkartera eraman behar dira urria- ren 30a baino lehen, Pablo Uranga 4-behea helbidera.

8 IGANDEA

• ZINEA

“Misión imposible” 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• EXTREMADURAREN EGU- NA

Eguerdiko 12etan plater tirake- ta Venta Frian bazkide eta lagunentzat. 1.30etan Extre- madurako ardoen dastake- ta lokalean. Arratsaldeko 5.30etan Corazón de Enci- na taldeko dantza eta koruen emanaldia lokalean. Era berean jakinarazten da irail- aren 12a arte Benigno Car- monaren erakusketara egon- go dela ikusgai Corazón de Encina taldeko egoitzan.

• KURTZEBARRI EGUNA

Goizeko 12etan meza Kurtze- barriko maldetan. Ondoren salda beroa eta txanpaina tri- kitalarien laguntzaz eta baz- karia.

• GATZAGAKO JAIK

Goizeko 11etan Otxandixokoei ongi etorria. 12etan Meza Santua. Eguerdiko ordu batean poteoa. 1.30etan herri kirolak. Arratsaldeko 4etan haurrentzat parkea. 5etan mus txapelketa. 7etan bertsolariak: Mendiluze, Mendizabal eta Peñagari- kano. Gaueko 10etan “Ziz- kuitz” txarangarekin dan- tzaldia

9 ASTELEHENA

• ZINEA
"Misión imposible" 7etan eta 9.30etan.

**GOIKOBALUREN
ENTSAIOAK**

Goikobalu abesbatza irailaren 10ean entsaioekin hasiko da gaueko 9etan San Frantzisko Xabier ikastolaren lokalean. Tenoreen entsaioa arratsaldeko 8.30etan hasiko da.

10 ASTEARTEA


• ZINEA
"Misión imposible" 7etan eta 9.30etan.

**FAMILI ETA GIZARTE HEZKUNTZARAKO
ZENTRUKO MATRIKULA**

Famili eta Gizarte Hezkuntzarako zentruan 96-97 ikasturterako izena emateko epea zabalik egongo da irailaren 13tik aurrera.

11 ASTEAZKENA

• DIAPOSITIBA EMANALDIA
AITA MENNIN
Gaia: Urtaroak mendia. Emalea: Imanol Lasa. Arratsaldeko 5etan Aita Mennin.



MUSAKOLAKO IGERILEKUA ETA AUKEA-KO KANPAINA

Musakolako barruko igerilekuak irailaren 9an, astelehena, zabalduko ditu ateak, aldi berean kanpoko itxi egingo da. Barruko igerilekuaren ordutegia: astelohetik ostiralera goizeko 8.30etatik gaueko 8.30etara. Larunbatetan goizeko 8.30etatik 7.30etara eta igandetan 8.30etatik 1.30etara. Bestalde, AUKEAren 96-97 kirol kanpainarako izena ematea zabalik dago eta interesatuok Musakolako kiroldegitik pasa beharko zarete. Ikastaroei dagokienez dagoeneko aerobic eta muskulazio gelak zabalik daude. Mantenimenduko gimnasia irailaren 11an hasiko da eta igeriketa ikastaroak 16an.

**9697
Ikasturtea**

- Oinarrizko Ofimatika
Windows 95 Ingurua
 - Diseinu eta Komunikazio Grafikoa
 - Komunikazio eta Sare Lokalak
 - Programazio Informatika
 - Kontabilitate eta Komertzial Gestio mekanizatua
 - Zerga Gestioa PYMES-etan
 - Giza Errekurtsoen Administrazioa
 - Kanpo Komertzioa
 - Mekanografia ordenagailuz
 - Laguntasun Klaseak
 - Merkatal eta Informatikako Aplikapenak Euskaraz
 - Euskara
 - Postari Oposaketak
 - Internet
-
- Gestio Informatika Teknikaria
 - Administrazio Teknikaria
 - Administrazio Laguntzailea
 - Klinika Laguntzailea
 - Dietetika eta Nutrizio Teknikaria

*Larunbat
goizetan ere
klaseak*

**MATRIKULA
ZABALIK**

**LANGAI- Euskal Lan
Zerbitzura Atsikia**

AKADEMIA
BASTIDA
CENTRO HOMOLOGADO POR EL INEM

Araba Etorb., 3 - 1.a
ARRASATE-MONDRAGÓN
Tel.: 79 35 33
Fax: 79 06 28

**ARRASATE
HOTELA**

Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

GORKA


**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE



Pako Robles *

Agur Pitote!

Agur Pitote, hiri eskaintzeko berba berriak asmatu nahi nizkiake eta horrenbestez hainbeste lagunek bihotzez zuzendu dizkiatena errepikatzea ekidin, hots, adiskide handia bezain zintzoa, benetako laguna, elkartasuna eguneroko ekintza bihurtu duen gizona galdu dugula eta horrelakoak ekidin eta berriak eskaini nahi nizkiake.

Zure bihotza lehertu egin omen da: zurea lehertu eta gurea lehertarazi egin du, behar-beharrezkoei agur esatera ez baikara ohitzen. Behar-beharrezko inor ez dela esan ohi da. Hori lelokeria hutsa da. Galde bestela Rosaritori eta Lurri. Galde zure laguntza eta are bihotza ere luzatu zenien nikaraguarrei. Galde zure bidelagunoi...

Baina jada ez zara gure artean. Denondako askatasunaren alde borrokatu zenuen horrek, orain haizearen hegaletan bidaiatzen duzu, aske. Zure errautsek gure herria hegaldatzen dute; eta aurrerantzean behar izaten zaitugun bakoitzean, sakon arnastu besterik ez dugu izango zure presentzia gure aldamenean sentitzeko.

.....

“Ez zinen inoiz bakardadean bizi izan eta horrenbestez, negar egin beharrean, zure heriotza aideratu egin dugu”

Agur Pitote, zu ez zinen inoiz bakardadean bizi izan eta horrenbestez, negar egin beharrean, zure heriotza aideratu egin dugu. Aidean askatu eta hemendik aurrera, zure oroitzapena behin eta berriro ekarriko digun haizea izango da nostalgia.

Askatasuneranzko bidea zailago eta neketsuago izango da zu gabe, horrexegatik eskatzen dizut zure begirada, zure itzala zuzendu diezaguzun eta gidatu zuk zenuen bizitasun eta indar horiekin zuk desiratzen zenuen etorkizunaren erai-kuntzaren bidean.

Garaipen egunera arte, lagun.

* KAZETARIA ETA
EUSKAL PRESO POLITIKOAK

USTEAK USTE

ARBOLAPETATIK

Abuztuan isiltasuna nagusi, bigarren astean batez ere. Beste urtetan baino jende gehiago edo gutxiago (honetan, betiko bezala, iritzi ezberdinak daude) baina herria bare bare. Taberna gutxi batzuk zabalik, dendar arratsaldez itxita, eta egunero aurpegi berdinak ikusten laurogei urtetik gorako zuhaitz honen gerizpetik. Egon dira ordea isiltasuna hausteko moduko bibrazioak, Andramaixetatik heltzen zirenak esaterako: batetik su artifizialak, gogoangarriak beren kalitate urriarengatik, erreusak ziruditen eta. Bestetik “Baroi Gorriaren” lagunek gozatzeko aukera izan zuten kontzertu bikaina. Gero barealdia berriro, nahiz eta hirugarren astetik aurrera herria betetzen hasi. Horrelako egunak eskertzekoak badira ere zenbaitetan lasaitasun horrek gogaitu egiten du, are gehiago aurten izan dugun eguraldi eskasarekin (Arbolapetak bankuetan jarrita ere ezin egon batzutan!). Honek, besterik ez bada, normaltasunera bueltatzeko gogo handitzen du eta behar den moduko parranda (lagunak hemen direla) egiteko nahia areagotzen.

ANDER ETXEBERRIA

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

TELLERIA

 AUTO-ESKOLA


Juan Carlos Guerra
enparantza
Tfnoa: 79 18 39
ARRASATE

Mitarte, 18
Tfnoa: 79 53 51
ARETXABALETA

BAZAR
TOKI ON

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA

Erdiko Kale, 7
Tfnoa: 79 91 64 • ARRASATE



Mondragon Unibertsitatea proiektuaren barruan, Giza Baliabideen karrera antolatuta nahi da bertan.

Gizabidek Eskoriatzako biatoristen etxea erosi nahi

Gizabidek, inguruko hamazazpi kooperatibek osatzen duten fundazioak, Eskoriatzako biatoristen etxea erosteko nahia azaldu dio biatoristen elkarteari.

Mondragon Unibertsitatea proiektuaren barruan datorren ikasturtean Eskoriatzan Giza Baliabideen karrera eskainiko dela eta, ikasgai horiek emateko toki bila dabil Gizabide. Biatoristen kontseiluak Gizabiderekin harremanetan hasteko baimena eman ondoren, fundazioa etxe horren jabe egiteko pausuak ematen hasi da baina oraingoz bi aldeen arteko elkarriketak hasi baino ez dira egin. Felix Ormaetxeak, Gizabide Funda-

zioko idazkariak, baieztatu duenez eskabidea luzatu diete biatoristei baina oraindik ez dizkiete baldintzak aurkeztu. Fundazio-ko idazkariak elkarriketek emaitza onak emango dituztela uste du, aurrez ere biatoristekin izandako harremanak onak izan dira eta. Irakasle eskolaren eraikina, adibidez, biatoristek eraiki eta ondoren Irakasle Eskolak erosi zuen.

Biatoristak 1921.ean joan ziren bertara bizi izatera. Garai batean ehundaka biatorista bizi zen bertan baina azken urteetan kopurua jeitsiz joan da. Egun zortzi biatorista bizi dira.

Ikasturtea hastear

Ikastetxeek finkatu dute ikasturtea zein egunetan hasi. **Institutuan** 25ean hasiko dira eskolak batxilergo eta UBI egingo dutenendako, eta 20an Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoendako. **Erguin Herri Eskolan** irailaren 12an baina goizez, eta 30etik aurrera egun osoz. **San Andreseko** ikasleek irailaren 9an ekingo diote ikasturteari egun erdiz, eta 30etik aurrera egun osoz. **San Frantzisko Xabierrek** irailaren 16an irekiko ditu ateak, eta 30era arte goizez emango dira eskolak. **San Viatorekoak** irailaren 12an itzuliko dira ikastolara eta lehen astean bakarrik goizez joan beharko dute. **DBHkoak**, berriz, 16an hasiko dira eta goi batxilergoak 18an. **Eskola Politeknikoan** batxilergo hasiko dutenek irailaren 19an, eta **La Mercedekoak** irailaren 11n goizez eta 16tik aurrera egun osoz. **Almenen** irailaren 12an hasiko dute ikasturtea lehen hezkuntzakoek, 18an **DBHkoendako** eta 23an **batxilergoak**. **Umezaintzara** lehengo aldiz joango diren umeek irailaren 11n joan beharko dute haur-eskolara.



UMEZAINZTA
HAUR-ESKOLA

LAN ESKAINTZA

Umezaintzako autobus zerbitzuan
haurren ardura izatea.

Baldintzak:

Euskara jakitea

Haurrekin harreman onak izatea

Epea: irailak 11

San Andres, 8 (San Josepe auzoa) Tfnoa: 79 01 02 Arrasate

Euskaldunak
izan nahi
dugulako
EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI
BIHURTU DUGU!



EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak, EGA eta
ALFABETATZE.

Gurasoentzat klase bereziak.

Matrikula epea:
IRAILAREN 27ra arte.

Informazioa eta matrikula:
ERDU-AEK EUSKALTEGIA
Garibai kalea, 14-3.
Tfnoa: 77 03 69



Udalaren laguntzaz.
BEKA SISTEMA.



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35	☎79 95 60
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk.....	☎79 72 23
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea.....	☎79 71 90
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis.....	☎79 73 88
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º.....	☎79 69 45
LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5	☎79 17 74
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B	☎77 12 63

DERMATOLOGIA

ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1	☎79 72 16
---	-----------

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis	☎77 03 96
--	-----------

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea	☎79 20 18
--	-----------

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk.....	☎79 79 46
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

MASAIARIAK

EUGENIO RAMOS, Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk	☎77 06 22
JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai).....	☎77 01 33

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Anlisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea	☎79 44 22
---	-----------

MEDIKU eta ESTETIKA ZENTRUAK

GARE San Vicente Ferrer, 2 behea ARETXABALETA.....	☎79 55 25
--	-----------

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6	☎79 25 98
LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1	☎79 29 95

PSIKOLOGOAK

TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10	☎79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

OTORRINOLARINGOLOGIA


ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea.....	☎79 20 18
---	-----------

REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA

GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1.....	☎77 00 40
--	-----------

UROLOGIA

LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56	☎79 44 22
--	-----------



Egun gutxi barru informazio puntua jarriko da Portaloian.

Urteroko joera izan du turismoak bailaran

Bisitari gutxi etorri ohi da uda garaian Deba Garaira eta aurtengo joera ere antzerakoa izan da. Bergarako turismo bulegoan 1.250 kontsulta egin dira, iaz baino %10 gutxiago, eta bisitari gehienak kataluniarrak eta madrildarrak izan dira. Oñatikoan, berriz, iazko kopuruari eutsiz 2.000 kontsulta egin dira. Kataluniako eta Madrileko bisitarietz gain, andaluziar asko hurbildu da aurten Oñatira. Nekazalturismoan diharduten inguruko baserriek, bestalde, azken urteetako jorari eutsiz nahikoa lan izan dute.

Bailarara turismoa erakartzeko apustua egin nahi duela eta, hile honetatik aurrera eki-

men bereziak jarriko ditu abian Deba Garai-ko Mankomunitateak. Alde batetik bi pakete turistiko merkaturatuko ditu kanpotarrak gure bailara bisitatzera etor daitezen. Eskaintza horiek maioristen bidez merkaturatuko dira, eta inguruak erakustearekin Oñatiko Tur-lan enpresakoak arduratuko dira.

Horrez gain, inguruko herrietako informazioa emateko, informazio puntuak deiturikoak jarri ditu Mankomunitateak Arantzazun eta Bergaran. Arrasaten, Portaloiko Kutxan jarriko dute informazioa emango duen ordenagailua eta datozen egunetan jarri-ta egotea espero da.

Gripearen aurkako txertaketa kanpaina

Irailaren 16an hasi eta urriaren bukaeran amaituko da Arrasaten gripearen aurkako kanpaina. 65 urtetik gorakoei eta diabetesa, bihotzeko gaisotasuna edo beste gaisotasun kronikoren bat dutenei gomendatzen zaie txertoa hartzea. Urtero moduan, gainera, asistentzi taldea auzoetara joango da txertoa jartzera. Irailaren 25etik aurrera hasiko da asistentzi taldea auzoetara joaten. Txertoa hartzeko 65 urtetik gorakoek ez dute paperik eraman beharko.

Kamioi ilada luzeak

Kamioi batek Arlabanen izan zuen akats mekanikoaren ondorioz, asteazken arratsaldean itxita egon zen mendatea. Kamioiak bi norabideak oztopatzen zituela eta, kamioi ilada luzeak sortu ziren Eskoriatzaraino. Arratsaldeko ordu bi terdietan geratu zen kamioia gurutzatuta, eta arratsaldeko bostak arte ez zen mendatea zabaldu.



URONDO elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE



Debagunek antolatutako Figueras-Donostia bizikleta irteeran hartu dute parte argazkiko gazteek abuztuan. **Felix Barci-nak, Jabi Rodriguezek** eta **Jon Ozaeta** arrasatearrak, Oñatiko **Jose Ramon Axpe** eta **Josu Odriozola**rekin bate-ra egin dute 11 eguneko bideta. Guztira 900 kilometro egin dituzte, eguraldi nahiko txarraz baina hala ere esperientzia errepikatzeko gogoz etorri dira.



Maroko aldean ere izan dira arrasatearrak. Basamortua, Atlas alde eta Xauen bisitatu dituzte argazkian basamortuko alberge bateko arduradunekin agertzen diren lagunak. Jakin izan dugunez 50 gradutik gorako tenperatura jasan behar izan dute. Eskerretik eskumara: **Jaione, Amaia, Ibrahin, Amaia, Ali, Monika** eta **Emi**.




Ana Mari Erañak ez ditu aurtengo oporrak hain erraz ahaszuko. Abuztuaren 4an Paki Garcia lagunarekin batera Egiptoko bidea hartu zuen bertan 15 egun igarotzeko. Baina 4. egunean autobusez Businbel-eko tenplora zihoazela istripua izan eta larriki zauritu zen. Sudurra hautsi eta begi inguruan zartada ederra hartu zuen arrasatearrak. Esperientzia gogorra izan zela aitortu digu Ana Marik, batez ere bertako ospitalen egoera-

gatik. Bera Assuaneko ospitalean egon zen nahiko txarto eta ondoren El Cairoko ospital militarera eraman zuten (bestea baino askoz hobea). Irailaren 13an berriz etxera etorri zen. Ana Marik asko eskertzen du Espainiako Consulak eta emazteak izandako jarrera eta baita bere bidaikide asturiar eta andaluziarrena ere. Gainera esan digunez herritarren dei asko jaso ditu bere egoeratik arduratuta eta horrek benetan poztu du.



Ainhoa Beitiak, Eider Ozerinjaurigik, Marta del Campok eta **Ainhoa Garaik** Luxenburguro, Belgika, Holanda eta Frantzia aldean pasa dituzte abuztuko oporrak. Inter-Railen bidez 15 egun igaro dituzte Europako paraje polit horiek ikusten. Argazkian Parisko Sex-Shop batean daude Eider, Marta eta Ainhoa.



Mikel Olabe, Iñaki Jauregialzo, Axun Ibabe eta **Anttoni Olabe** Perun izan dira abuztuan. Lima, Machu Picchu eta beste toki zoragarri batzuk ezagutu dituzte euren bidaian. Argazkia txabola auzune batean aterata dago, beraiek esan digutenez auzune benetan txiroa.

Rafa Etxabe arrasatearra eta **Angel Mari Otxoa** atxabaltarra Bosnia eta Kroazian izan dira abuztuan. Kroaziako kostaldean egon eta gero, Bosniako Sarajevo eta Mostar hiriak ezagutu zituzten. Biek bertakoekin egoteko aukera izan zuten, gerrako lekukoekin hain zuzen ere. Beraiek esan digutenez Sarajevo eta Mostarreko toki estrategiko guztiak apurtuta aurkitu dituzte. Bosniako alde handi bat gainera kroaziarrek dute okupatuta eta egoera orohar ez da batere ona bosniarrenzat. Hala ere, oso jende tolerantea eta gorroto gutxikoa iruditu zaie.



Pilar Ansuategi arrasatearra Chiapasko La Cañada de Sanquintineko El Pradon izan da brigadista lanetan. Beste bi euskaldunekin batera bertako Indigenei laguntzen egon da hilabete osoan.

Arrasatear honek dioen bezala bertan bizi den egoera txarra izan arren, indigenak ilusioz beterik daude egoera horretatik irten eta bizitza hobea eramateko. Argazkian Pilar Maria eta bere semea Victoriorekin agertzen da.



IZEN PROPIOAK

● **Aitziber Aranburuzabala** 24 urteko eskoria-tzarra Arrasate Irratiko kazetari berria da. Aitziberrek kazetaritza ikasi zuen Leioan eta Patxi Montero ordezkatuko du hurrengo bi urtetan. Aitziber aurrez El Mundo aldizkariko Deba Garaiko korrespontsala izan zen.

● **Dorleta Kortazar Alkoz** 23 urteko eskoria-tzarra Gazte Bulegoko Gazte informatzaile berria da. Dorletak Tasoc moduloa ikasi du Almen ikastetxean. Esther Balanzategi ordezkatu du hemendik aurrera.



Lore Gazteak taldeko 30 dantzari Valladolideko Nazioarteko tradiziozko dantza jaialdian izan dira asteburuan. Simancas herrian ospatu zen ekitaldia eta bertan Arrasateko dantzariekin batera Frantzia eta Greciakoak izan ziren. Lore Gazteak taldekoen dantzak izugarizko arrakasta izan zuten eta txalo zaparrada ederra eskaini zieten gure dantzarien poztasunerako.

TOUR PORRA MUNDIALA!

Azkenean ez zen sorpresarik egon ARRASATE PRESS eta ATBk antolatutako Tourraren porran, eta hasiera hasieratik sailkapeneko lehen postuetan ibili zen Jose Luis Azkaratek eraman zuen azkenean Lizarralde Kirolak dendako mendiko bizikleta.


Lehen hamar sailkatuen puntuaketa honako hau izan zen:

1. **J. L. Azkarate** 1.022 puntu
2. **Jon Mendieta** 964 puntu
3. **Itziar Okina** 895 puntu
4. **Ramon Azkarate** 893 puntu
5. **Pilar Velez** 884 puntu
6. **Cesar Azkarate** 879 puntu
7. **Anuska Elorza** 878 puntu
8. **Milagros Beitia** 875 puntu
9. **Consuelo Modino** 860 puntu
10. **Iker Arostegi** 832 puntu


ARKOko komunikabideek antolatutako porran 151 lagunek hartu zuten parte eta egunero maillot bat zozketatu genuen eguneko sailkapeneko irabazleen artean.

Arazotxo batzuk tartean, oraindik ez zaigu posible izan agindutako maillot guztiak eskuratzea, baina maillotaren zain zaudetenok lasai egon, laister jasoko ditugu eta. Eskuratzen ditugunean deituko dizuegu telefonoz.

Azkenik, eskerrik asko porran parte hartu duzuen guztioi. Datorren urtean gehiago eta hobeto!



**JOSE LUIS
AZKARATE**
Lizarralde Kirolak
dendak emandako
mendiko bizikleta
jasotzeko unean.



Hiper Eroski berriak 10.000 m²ko azalera izango du eta Gabonetarako zabalik egotea espero da.

Denda txikiak eta Hiperra

Roneoko eraikin zaharraren lurreratzeak sortu zuen hautsa lurrera heldu baino lehen hasi ziren lanean makinak hilabete gutxi barru Hiper-Eroskia izango dena eraikitzeko, Deba Garaiko merkatalgune handiena. Obrek

daramaten abiadura izugarria da eta ziur Arrasatetik Bergarara edota alderantzizko norabidean pasatzen den batek baino gehiagok hizpide izan duela martxa azkar hori. Jakina, Gabonetako erosketak Hiperrean egin ahal

izango dituela jakiteak poztasuna ematen dio herriko eroslegoari, baina merkatalgune berriari beste alde batetik begiratuz gero, poztasun hori kezka larri bihurtzen da herriko beste sektore batenzat: dendari txikientzat.

Maider Egües

Arrain handiak txikia jaten du": hori ei da naturaren legea eta Hiperraren aurrean arrain txikiaren pape-rean ikusten dute euren burua herriko dendariak, batez ere elikagaien sektorean dabil-

tzanek. Herritarrentzat albiste ona izan dena buruhauste bihurtu da herriko dendari gehientzat eta ezinezkoa ikusten dute horrelako azalera komertzial handi bati konpetentzia egitea. Hiper-Eroski berriak 10.000 m²ko azalera izango du, gaurko Maxia baino 4 aldiz handiagoa. Salmenta gunea 6.000 m²koa izango da eta Maxia zentru

komertzial bihurtuko da. Horrez gain 650 autoendako aparkalekua, autoendako zentro bat, gasolindegia, kafetegia, jatetxea eta Eroski Bidaiak agentzia izango du Hiper berriak. Horri guztiari merkatalguneak sortuko duen erakarpin indarra gehitu behar zaio eta horri buruz asko dakite Arrasateko negozio txikidunek. 1989tik, Maxi-Eroskia

zabaldutuzten, ondo eza-gutzen dituzte horrelako merkatalgune mota batek denda txiki bati eragiten dizkion kalteak. Dena dela, merkatalgune handiek ez dute eragin berdina izaten denda mota guztietan. Denetarik elikagaiak saltzen dituzten komertzioek zuzenean igerriko dute Hiperraren eragina. Merkataria hauek oso beltz ikusten dute

euren negozioren etorkizuna.

ELIKAGAI DENDEK ETORKIZUNIK EZ

Mari Karmen Mendizabalek orain 13 urte zabaldu zuen bere janaridenda Ferrerias kalean. Bere lana bokazioz maite duela esaten du baina negozioa nola doan ikusita itxi egin beharko duela dio: "Jubilatzen naizenean denda itxiko dut, horretan ez dut dudarik. Nire alabek negozioa hartuko balute pikutara joango lirateke. Ez du merezi denda mantentzea Maxi, BMedo Hiperrean piper potea erostea ahaztu duen horri faborea egiteko edo goizean betikoei ogia saltzeko".

Mari Karmenek Udalarri botatzen dio errua: "Udalari, denda txiki hauetatik baino, Maxi edo Hiperretik etorriko zaio irabazi gehiago. Udalak ohiko denda txikiak, herriari bizitasuna ematen dioten dendak mantentzeko interesik balu, zeozer egingo luke!".

Arazoaren aurrean ezer ezin dezakeela egin esaten du dendariak: "Daukadan denda txikiarekin ezin dut ezer egin baina hemen dagoen fruta merkatuan dagoen onena da eta gainera kalitatea eze-



Maxia zabaldu zutenetik elikagai denda txikiak euren negozioren gainbehera sufritu dute.

zik denda txikiak zerbitzua askoz hobea ere bada. Denda txikietan, bezeroarekiko tratua askoz hobea da".

Samuel Fernandezek kasua berdina da. 1974an zabaldu zuen bere denda San Andresen eta denetarik saltzen du: fruta, ogia, barazkiak, enbutidoak, garbitasunerako produktuak... Sutan jartzen

da merkatalgune handiei buruz hitzegiterakoan: "Maxiak kalte handia egin du nirea bezelako negozioetan baina niri eta San Andresko negozioei konkretuki, BMak egin digu kalte, eta izugarria gainera. Ondo ikusten ditut merkatalgune handiak, Maxiaren kontra ez dut ezer baina udalak BMari dagoen tokian jartzeko bai-

mena ematea ezin dut barkatu. Horrelako supermerkatuek distantzia minimo bat gorde behar dute herrigunetatik edo San Andres bezalako auzogune handietatik eta ezin dira erdigunean bertan jarri. BMak bezero guztiak jan dizkit. Eguneroko erosketak, 400 ptako horiek egitera etortzen ziztzaizkidan bezeroak BMra doaz orain. Gainera BMak ez du merkeago saltzen, jendea engainatzen dute. Ofertan jartzen dute produktu zerrenda bat baina gainontzekoei prezioa igotzen diete.

Berriztu gaitzela esaten digute, baina zertan? nola? Ahal dudan guztia egin dut, dendan denetarik daukat eta ezin dut ezer egin. Gainera, denda isten badut kalte handia egingo diet oinez urrun joan ezin diren edadeteuei, horiek baitira hona datozenak. Udalak ez du horretan pentsatzen."

MUSAKOLAKO DENDAK KALTETUENAK

Jose Luis Ortizek zuzenean itxiko du denda. Santa

2000. urteko kontsumitzaileari begira

Iosu Sanzek, Eroskiko prentsa arduradunak azaltzen duenez, arrazoi nagusi bat dago Maxi Eroskia Hiper Eroski bihurtzeko: Maxiak izan duen arrakasta eta erosleek egiten duten zerbitzu berri eta ugariagoen eskakizuna. Maxiaren arrakasta baieztatzeko bada- go arrazoi mordo bat: elikagai eta gainontzeko produktuen eskaintza zabala, kalitatea, zerbitzua, erosketaren sistema eroso, dohaineko aparkalekua eta eskaintzen den ordu-tegi zabala. "Guzti honek izan duen erantzun positiboaren aurrean Eroski Kooperatiba 2000. urteko kontsumitzailearen beharretara egokitzen saiatzen da" dio Iosu Sainzek.

Eroskiko prentsa arduradunak Hiper berria herriarentzat oso positiboa izango dela dio: "Ezaugarri hauetako merkatalgune batek modalitate desberdineko komertziantek biltzen ditu. Kontsumitzaileentzat interes komertzialeko gune bihurtzen da, beraz, herriko beste dendak moduan, komertzial erreferentzia puntu izango da Hiperra."

Hiperrak izango duen galeria komertzialaren inguruan ere positiboki hitzegiten du Sainz-ek, "Hiperrera erosketak egitera datorren jendea erakarrita sentituko da dendenkin." Iosu Sainzek Hiperrak herri moduan Arrasate aberastuko duela dio: "Hiperrak eskualde osoko erosleak erakarriko ditu eta gainera, kanpora doazen horiek hemen geraraziko ditu".

Teresa aldean "Aro Rojo" supermerkatua dauka orain dela 30 urtetik baina Maxia zabaldu zutenetik bezeroen %50a baino gehiago galdu du. Hiperrarekin oraindik bezero gehiago galduko dituela uste du.

Negozioa zabaldu zutenean 6 pertsona zituen Jose Luisek soldatapean; orain 2 baino ez, eta eguna zerura begira pasatzen dutela dio, dendara apenas doa bezerorik. "Maxiak kalte gehiago egin dio Musakolari gainontzeko herriari baino, gertuago dago eta. Hiperra zabaltzen dutenean negozioa itxiko dugu, zer bestela? Maxia zabaldu zenetik 6 eli-

kagai denda itxi dira Musakolan, 20 lanpostu galdu dira. Eroskik, Hiperrarekin, lanpostuak sortuko dituela dio baina kontuan izan barik beste asko kendu dituela eta gehiagoko kenduko dituela".

ALDE ZAHARRA HOBETU BEHARRA

Akaso, produktu konkretu batean bereiztu diren dendak dira gutxien kaltetuak. Adibidez, Jose Ramon Otamendi harakina ez da Hiperraren beldur, Maxiak ere ez dio eta kalterik egin. Ferrerias kalean dauka harategia aspaldidanik eta bere dendaren abantaila, beste dendari

txikienak bezala, zerbitzua eta kalitatea dela dio: "Ezin gara prezioen gerran sartu Eroskirekin, galdu egingo genuke, beraz kalitatearekin eta zerbitzuarekin jokatzeko dugu, hori da gure abantaila bakarra".


Dena den, Hiperrarekin, herriko dendak orokorrean kaltetuta aterako direla uste du Otamendik. Hori ekiditeko Udalak dendari txikiei laguntza eta erraztasun gehiago eta handiei gutxiago eman behar lizkiokela esaten du.

Yolanda Sanchezek, SIKOL lentzeria dendakoak esaten duenez, herriaren erdiguneak ez ditu lasai eta gus-

tora pasiatzeko baldintzak betetzen eta horrek kalte egiten die dendariei: "Herriaren erdigunetik ezin da lasai pasiatu. Kotxeak erdigunetik pasatzen dira eta kale batzuetako lurra oso labankor dago. Bestalde, gauetan edo neguko arratsaldetan, oso argi gutxi egoten da kalean. Denda guztiok argiak itzaliko bagenitu herria ilunpetan geratuko litzateke". Udalak hobekuntza horiek egiten ez baditu, jendea arratsalde pasa Hiperrera joango dela uste du. Yolanda dioenez, asteburutan herriko jendea hiriburuetako merkatalguneetara joaten da arratsalde pasatzera.

Ibai Arte elkartearen proposamena

Ibai Arteko ardura-dunak kezkatuta daude Hiperrak Arrasateko erdiguneko dendetan eta herrian bertan eragingo duen ondorioekin. Euren ustez, Hiperra eta erdiguneko denda multzoa ez lirateke euren artean kontrakoak izan behar, osagarriak baizik. Hori horrela izan dadin, badute proposamen bat. Proposamen horri buruz Paco Gonzalez eta Karmele Etxagibel mintzatu dira.



Paco Gonzalez eta Karmele Etxagibel, Ibai Arteko kideak.

— Zein irtenbide daukate herriko dendek Hiperra bezalako merkatalgune baten aurrean?

— Lehenik eta behin, argi geratu behar da gu ez gaudela Eroskiren aurka, ezta Hiperra jartzearen aurka ere. Arazoa honakoa da: Hiperrera inguruko herrietako jende asko joango da, bailara mailako merkatalgunea izango da eta. Bertara doan jendea herriaren ateetan gera ez dadin, hau da, erdigunera sartu dadin, gauza batzuk hobetu behar dira. Gaur egun,

gure ustez, erdigunean gauza asko dago gaizki, adibidez, trafikoa, kale labankorrak, argiztapen txarra, parking gutxi... erdigunea horrela bada, ez da erakargarria, ezin da eta gustora ibili kaleetan zehar. Azkenean herria hustuz joango da eta Frantzia eta Alemanian gertatu den moduan, herrigunea desertizatu egingo da. Denok dakigu azken urteotan Arrasateko biztanleria jeitsi egin dela eta hori zerbaitegatik izango da. Hiperrera etorriko den jendea erdigunera hurbiltze-

rik balego herriak bizitasuna irabaziko luke eta hori, alde guztietatik begiratuta, ona da Arrasaterentzat. Dendariok gure negozioen alde ahal dugun guztia egin behar dugu baina gainontzekoa, herria hobetzearena, Udalaren esku dago.

— Udalak nola hurbildu- razi ahal izango litzuke Hiperreko bezeroak?

— Erdigunea hobetuz eta adibidez, kalean bertan ikuskizunak etabar antolatuz aste-buru arratsaldetan.

— Zer eskaini diezaioke- te erdiguneko dendari- kanpotik datozen erosleei?

— Denetarik, jakina. Arrasate gainera, geografikoki oso ondo kokatuta dagoenez, herri ona da dendak jartzeko. Dena dela, argi dago espezializatu beharra daukagula, hau da, produktu konkretuagoak saldu behar ditugu, Hiperran edo merkatalgune handietan aurkitzen ez diren produktuak. Produktu ona eduki eta gero, publizitate ona egitea ere beharrezkoa da, horrela, jendea Hiperrera erosketak egitera joan eta gero erdialdera etorriko litzateke beste erosketara mota batzuk egitera.

— Erraza da herrian den- da bat zabaltzea?

— Garestia da denda bat mantentzea, zergak oso altuak dira eta. Gure ustez, Hiperrari erreztazun asko eman zaio lehenbailehen zabalik egon dadin eta guri, Hiperrarekin ezin konpetitu dezakegunoi, zailtasunak baino ez zaizkigu jartzen gauza guztietarako. Baldintza berdintasuna eskatzen diogu Udalari.

● *Joseba Larrinaga*

Zilarraren jabe Atlantan

Joseba Larrinaga atxalbarrak Atlantako paraolinpiadetako Maratoian zilarrezko domina lortu zuen. 28 urteko kirolari honek 5.000 metroko lasterketan eta maratoian hartu zuen parte. 5.000 metrotan 15 lagunen arteko bosgarrena izan zen. Maratoian berriz, bigarren postua eskuratu zuen 2 ordu 43 minutu eta 24 segundurekin. Josebarentzat lortutako domina azken urteetan egindako lanaren fruitua izan da.

— Nolakoa izan da Atlantako esperientzia?

— Zoragarria benetan. Selektzioko kideak, Federazioko arduradunak, bertako egonaldia... dena primerakoa izan da. Lehen esperientzia izateko ez dago gehiago eskertzirik.

— Maratoian zer egin zitzaizun gogorrena?

— Ondo hasi zen lasterketa, niri komeni zitzaidan erritmoa eraman genuen. Gogorrenak berriz, azken 25 kilometroak egin zitzaizkidan. Izugarritzko sargoria eta hezetasuna zegoen. Hasi eta berehala izerdi batean hasi ginen guztiok eta ibilbideak


gora behera asko zuenez gero, desgaste handiagoa igartzen genuen hanketan. Ni neu bigarren kilometrotik likidoa sartzen hasi nintzen deshidratatzeko beldurra nuelako.

— Paraolinpiadak ezinduen kirola hobeto ezagutzera emateko balio izan dute?

— Baietz uste dut. Hala ere ez da jende asko izan harmailetan. Kontua da enpresa pribatuak dirua eman zutela eta hauek negozioa egiteko sarrerak ordaintzen zuten. Aurrez Olinpiadak egon zirela kontuan hartuta, jendeak ez zuen nahi beste ondo erantzun eta alde horretatik pena bat izan zen. Bestalde Estatuko komunikabideek jarraipen zuzena egin dutela jakin izan dugu eta hori jakina, oso garrantzitsua da.

— Olinpiadetan antolakuntza txarra egon dela entzunda, zuek ere bizi izan duzue horrelako arazorik?

— Garraioan igerrri dugu gehien bat. Dena dela, ez da ahaztu behar Olinpiadetan 10.000 lagun izan zirela eta Paraolinpiadetan 3.000. Beraz kopuru hori hobeto antolatzen da. Autobusekin atletismokook ez dugu arazorik izan baina beste kirol batzuetakoek bai.



— Nori eskaini behar diozu zilarrezko domina?

— Atletismoa kirol indibiduala dela diote baina nik ondo dakit domina lortzeko jende eta laguntza asko izan dudala. Beraz familiari, lagunei eta nire entrenatzaileari Pedro Mari Azkargortari eskerrak eman behar diet bestela ezinezkoa egingo zitzaidan lortutakoa lortzea. Hala ere, bereziki bi pertsoneri eskaini behar diet zilarrezko domina: bi hila-beteko nire iloba Amalurri eta Kepa Urria preso politikoari.

— Estatuko txandalaz korritu eta Euskadikoaz itzuli?

— Hori ofizialtasun kontua izan zen. Estatuko selektzioko arropaz egin behar genuen korrika nahi eta nahiez, Madrilera ere arropa

horrekin etorri ginen baina Euskal Herrira etortzeko Euskadikoa jantzi genuen.

— Nola aldatuko da zure bizitza hemendik aurrera?

— Nik ez dut nahi aldatzerik, Aretxabaletan oso gustora nago. Baina bestalde kirol mailan dexente aldatuko dela uste dut. Orain ezagunagoa naiz eta gehiago eskatuko didate, ardura handiago izango dut eta ondo erantzuten ahaleginduko naiz

— Atletismoan jarraitzeko asmorik bai?

— Joan aurretik zalantzan nengoen baina izandako esperientzia positiboa ikusita jarraitzeko indarrez nago.

— Hurrengo helburuak zeintzuk dira?

— Helburu nagusia Sidney da. 4 urte geratzen dira baina horra heltzeko borrokatuko dut. Epe motzera datorenen urtean Munduko txapelketa burutuko da Madrilera eta hori prestatzen hasiko naiz urritik aurrera.

● **“Atlantako Paraolinpiadetan bizi izandako esperientzia eta lortutako saria zoragarria izan da”**

ERREBELATUEN ESKAINTZA

4x3

ERREBELA ITZAZU

4 ROILO

ETA ORDAINDU

BAKARRIK 3



- * Hegazkinak zigildutzeko eta errebelatuaren eskaintza hartu ahal izateko, ezinbestekoa da orri hau aurkeztea.
- * 24 edo 36 argazki errebelatuentzako soilik.
- * Banan-banan gehitu daitezke errebelatuak.

Eskaintza hauek 1996ko urriaren 14an bukatzen dira.

ROILOEN ESKAINTZA

ERAMAN ITZAZU

3 ROILO ETA

ORDAINDU BAKARRIK 2

3x2



- * 24 edo 36-ko roiloentzako soilik.

Iturrioz, 8 - Baje • Tel. (943) 77 04 01
ARRASATE

AG AMAGARA



ESKAITZA BEREZIA

Urriaren 10a arte.
Tratamenduaren 8 sesiogatik,
beste 2 sesio opari!!

DEITU EZAZU!!

Noizbait pentsatu duzu nola egon zaitezkeen ederrago?

- Drenaje linfatikoa
- Hidroterapia
- Fangoterapia
- Elektroterapia
- Dieta pertsonalizatua
- Terapia mediku-estetikoak

AMAGARA

Erdiko Kale, 54 etxabea • ARRASATE
Tfnoa: 79 09 09



- Markoak
- Kuadro originalak
- Obra grafikoak
- Laminak
- Ispiluak



*Zabaldu
berria!*



Maalako Errabala, 8
ARRASATE • Tfnoa: 79 56 44

ARREGI

Arte eta Enmarkazioa

Z E R N A H I A G O ?

J. Antonio Doyague

“Bakailo etxea”koa



- Oporretan non? Ez dut oporrik izan.
- Zerk ematen dizu amorrua? Mahaian jatean ohitura txarrak edukitzea.
- Margolari bat? Goya.
- Zapatilak ala zapatak? Zapatilak
- Janari bat? Entsaladila errusiarra.
- Kantzontzilo luzeak ala normalak? Normalak.
- Nork garbitzen dizkizu zapatak? Batzutan nik eta beste batzutan emazteak.
- Nondik ekartzen duzu makailaua? Islandiatik.
- Gustatzen zaizu makailaua? Ez.
- Orduan zergatik jarri zenuen denda hau? Arrasaten ez zegoelako horrelakorik.
- Erretzen duzu? Ez.
- Arrasateko tokirik politena? Santa Barbara.
- Zatarrena? Ez dakit, baina Arrasate ez da polita.
- Kostatzen zaizu barkamena eskatzea? Ez.
- Baduzu animalirik etxean? Katu bat.
- Non egiten dituzu erosketak? Erdialdean eta etxean.
- Fruta bat? Platanoa.
- Noiz saltzen da makailau gehien? Neguan.
- Nora gustatuko litzazuke oporretan joatea? Menorkara.
- Seme-alabarik? Bi alaba.
- Zein ordutan jeikitzen zara? Zortziretan.
- Zer gosaltzen duzu? Ez dut gosaltzen, hamarretakoa egiten dut.
- Ikusi duzun azken filmea? Thelma eta Louise.
- Gustatu zitzaizun? Bai.
- Zein egunkari irakurtzen duzu? Egin.
- Azken gaupasa? Orain dela bi hile, Zaldibarko txapelketa zela eta.

EGONALDIAK

3. adinekoendako egonaldiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak Alcoceberren egonaldia antolatu du 3. adinekoendako.

Egun osoko pentsioa eta Donostiatik autobusa izango dute bidaiari parte hartzen dutenek. Bidaia 3 txandetan egingo da: lehengo txanda irailaren 30tik azaroaren 30era, bigarrena irailaren 30tik urriaren 30era eta hirugarrena urriaren 30etik azaroaren 28ra. Bidaia parte hartu ahal izateko 65 urtetik gorakoa izan beharra dago, Gipuzkoan bizi izatea eta norbere buruaz baliatu ahal izatea derrigorrezkoa da. Prezioa diru sarreraren arabera izango da. Bidaia parte hartu ahal izateko NANaren kopia eta jasotzen den pentsioaren ziurtagiria aurkeztu behar dira Bergarako Gizarte Zentruan. 1. eta 2. txandaren eskakizuna egiten dutenek abuztuaren 30era arte izango dute epea dokumentazioa aurkezteko eta 3. aukerakoek irailaren 30era arte. Eskera egiterakoan 5.000 ptako fidantza ordaindu beharko da.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Preferente mailako Mondra 96-97 denboraldia

Gaztetasuna da aurtengo Mondraren ezau-garri nagusia. Jesus Mari Barrutiabengoa entrenatzaileak eta Neka laguntzaileak herriko jokalarik eta gazteak izango dituzte euren eskuetan ahalik eta fruitu onena ateratzeko. Entrenatzaileak gaztetatik ezagutzen dituzten jokalarik guztiak, beraz alde horretatik abantaila izan dezakete bi aldeek euren harremana sakondu eta emaitzak azkarrago ager daitezten. Datorren asteburuan abian jarriko den taldearen helburua 3. mailara igotzea

da. Hala ere, badakite aurtengo zaila izango dena, horregatik jendearen babesa izatea gustatuko litzaieke, batez ere Atxabalpen.

Jesus Mari Barrutiabengoa entrenatzaileak aurtengo 22 jokalarik izango ditu baina ez da ahaztu behar horietariko batzuk lehen erre-

gionaleko fitxa ere izango dutela.

96-97 denboraldian Mondrak preferente eta lehen erreregionaleko taldeetarako 9.500.000

pezetako aurrekontua izango du. Guztira berriz, 14 milioikoa Atxabalpeko futbol zelaiaren gastuak kon-tuan hartu barik.



Dabid Luri
Atezaina
20 urte
Arrasatearra



Igor Areitio
Atezaina
21 urte
Eibartarra



Asier Lopez
Atzelaria
22 urte
Arrasatearra




Aritz Arabiourrutia
Atzelaria
19 urte
Arrasatearra



Asier Luengo
Atzelaria
19 urte
Arrasatearra



Eduardo Zulueta
Atzelaria
25 urte
Eibartarra



Jon Pildain
Atzelaria
19 urte
Oñatiarra



Sergio Garcia
Atzelaria
18 urte
Arrasatearra



Mikel Larrañaga
Atzelaria
19 urte
Arrasatearra



Ruben Rueda
Erdilaria
21 urte
Arrasatearra



Gonzalo Espel
Erdilaria
21 urte
Arrasatearra



Beñat Apraiz
Erdilaria
22 urte
Arrasatearra



Jon Ander Errasti
Erdilaria
19 urte
Eskoriatzarra



Argider Arana
Erdilaria
18 urte
Arrasatearra

Mondraren denboraldia

Preferente mailako Mondrak zapatuan hasiko du denboraldia eta lehen partiduan Hondarribia izango du aurkari. Neurketa arratsaldeko 5etan jokatuko da Hondarribin. Lehen bueltan 19 partidu jokatuko ditu Arrasateko taldeak.

Irailak 7

Hondarribia - Mondra

Irailak 15

Mondra Zestoa

Irailak 22

Beti Gazte - Mondra

Irailak 29

Mondra - Oiartzun

Urriak 6

Lazkao - Mondra

Urriak 13

Mondra - Iiintxa

Urriak 20

Mondra - Mundarro

Urriak 27

Anaitasuna - Mondra

Azaroak 3

Mondra - Real Union

Azaroa 10

Beti Ona - Mondra

Azaroa 17

Mondra - Pasajes

Azaroa 24

Mutriku - Mondra

Abendua 1

Mondra - EHU

Abendua 8

Bergara - Mondra

Abendua 15

Mondra - Ordizia

Abendua 22

UDA - Mondra

Abendua 29


Mondra - Orioko

Urtarrila 5

Zarautz - Mondra

Urtarrila 12

Mondra - Roteta.



Igor Tola

Erdilaria
20 urte
Arrasatearra



Oscar Santor

Erdilaria
18 urte
Arrasatearra



Agustin Calleja

Erdilaria
21 urte
Arrasatearra




Alberto Matalobos

Erdilaria
18 urte
Arrasatearra



Oxel Apraiz

Aurrelaria
19 urte
Arrasatearra



Gorka Otxoa

Aurrelaria
25 urte
Arrasatearra.



Raul Leiba

Aurrelaria
23 urte
Arrasatearra



Julen Arkautz

Aurrelaria
22 urte
Arrasatearra



J. M. Barrutiabengoa

Entrenatzailea
33 urte
Arrasatearra.

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

EZARKI
OINETAKO KONPONKETAK

- Oinetako mota guztien konponketa (kalekoak, kirolekoak, mendikoak...)
- Kremailerak
- Rematxeak, ojalak, automatikoak
- Kremak, tinteak, kordoiak
- Nekearen kontrako plantilla bereziak
- Zientifikoki aztertutak
- Forma anatomikodunak
- Arazo guztiendako plantillak

Zabaldu berriak, Postaloituk 100 metroa!!

Maalako Errebala, 8
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82


Aranzadik indusketa lanak egin ditu Leze Txikin

Zientzia elkarteak aztarnategia babesteko beharra ikusten du

Abuztuaren erdialdean hasi ziren Alvaro Arrizabalaga, Aranzadi Zientzi Elkarteke arkeologoa eta Arrasateko laguntzaile batzuk Leze Txikin indusketa egiten. On Jose Migel Barandiaranek 1968an utzitako lanari berriro ekin eta kobaren hegoaldeko lur zati berri bat hasi da aztertzen talde hau arkeologoaren zuzendaritzapean. Hasi berri duten indusketa berri honekin Leze Txikin egiten den 14. kanpaina da hau, 1956an egin zuen Barandiaranek lehena eta. Hiru astetan zehar ibili da taldea lanean eta joan den ostiralean aurtengo ekinaldia amaitutzat eman zuten, eguraldi txarraren ondorioz nahiko zaila izan dena. Alvaro Arrizabalaga arkeologoak esan duenez, lanean aritu diren egun gehienetan presente izan da euria eta euria dagoenean lanari utzi behar izaten zaio. Aurtengoa amaituta, gutxienez datozen bi urtetan jarraitzea espero du arkeologoak. Hasi duten indusketa berriarekin aurrekoetan ilun geratu ziren puntu batzuk zehaztu eta argitu nahi dituzte eta bidez batez, azken urteotan jendeak koban egin duen hondamendia dela eta, koba bera eta aztarnategia babestea beharrezkoa dela ulertarazi nahi diote herriari. Hori horrela izan dadin babes neurri batzuk hartzea beharrezkoa dela dio Alvaro Arrizabalagak.

— Zer dela eta ekin zaie berriz indusketa lanei?

— Bi arrazoi desberdin-



Alvaro Arrizabalaga arkeologoak zuzendu ditu indusketak.

gatik ekin diegu indusketei: Leze Txikiren inguruan oraindik badagoelako kezka arkeologikorik, beraz, arrazoi bat zientifikoa da. Bestetik, Leze Txikik daukan balio handiagatik aztarnategia babestu nahi dugu eta horren alde ere egingo dugu lan.

— Ze kalte egin dira aztarnategian?

— Izugarriak, benetan. Azken urte hauetan etorri da jendea eta lurra atera du aztarnategitik. Barandiaranek 1968an egin zuen azken indusketaren marka aztarnategiko paretan ikus daiteke baina marka horretatik aurrera sekulako zuloa aurkitu dugu. Horrek zera esan nahi du: marka horretatik aurrera falta den lur guztia hona etorri direnek

atera dutela. Leze Txikiren mailako aztarnategi batean egin dutena egitea zigortuta dagoen delitua da. Arkeologikoki min handia egin dela esan behar da. Aztarnategian aitzur markak ikusten dira argi eta garbi eta jende guztiak dakien moduan, indusketa lanetarako erabiltzen den materialean ez dago aitzurrik. Aitzurrarekin lurra ateratzeagatik lurperatuta zeuden hezurak, harriak eta beste gauza batzuk guztiz apurtu dira eta jakina, material asko etxera eraman dute ibili diren horiek.

— Zein material?

— Iberpenintsulan Neanderthal gizakiaren 12 bat hezur baino ez dira egongo. 12 horietatik 3 Leze Txikin ager-

tu ziren eta horietatik 2 Barandiaranek egin zuen azken indusketan. Jendeak, esan bezala, azken indusketa egin zen tokitik aurrerako 20 m³ lur eraman du, beraz, lur kantitate horretan askoz ere arrastotegiago egon zitekeela uste dugu, baina hori ez dugu sekula jakingo.

— Zer egin beharko litzake horrelakorik gehiago gerta ez dadin? Kobarako bidea itxi?

— Alde batetik babespen legal handiagoa eman beharko litzaiokete eta lan horretan hasiko naiz segituan. Orain Leze Txiki "koba bildumatu" bada, "koba kalifikatua" izan dadin eskatuko dugu, bi kategoria desberdin dira eta. Horretarako Eusko Jaurlaritzarekin jarriko naiz kontaktuan. Bestalde, aztarnategia babesteko istea litzateke onena. Ez dut esan nahi betirako itxita egon beharko litzatekeenik, ezta gutxiago ere: nire ustez onena maiztasun batekin aztarnategia zabaldu eta interesa dutenei ikusteko aukera ematea litzateke. Pertsona hori edo horiek norbaitekin etorriko lirateke, beraz, bisita gidatuak lirateke. Nire ustez, Leze Txiki bisitaleku moduan jarriko balitz, parrokiarekin batera, Arrasateko lekuri garrantzitsuen bihurtuko litzateke. Babeserako eta turismorako zabalkunde antolaketa bat egitea posible ikusten dut eta ideia ona da. Gainera, kobaren ingurua jatorrizko landarezarekin osatu ahal izango litzateke, kobaren inguruko azken 50.000 urteetako landaretza nolakoa



Arrasateko zazpi lagun aritu dira hiru astetan zehar laguntza lanetan.

zen badakigu eta. Kontuak kontu, aztarnategia babestea guztiz beharrezkoa da gertatu dena berriz gerta ez dadin.

— Indusketa honen helburu zientifikoa berriz, zein da? Zeintzuk dira aipatutako puntu ilunak?

— Hiru puntu daude ilun Leze Txikiko ikerketetan: Lehenengoa kronologia da. Koban zenbat urteko mailak edo geruzak dauden zehaztu nahi dugu. Hori jakiteko Carbono 14a baino datazio zaharra ematen duen sistema

erabiliko da: Uranio Torio-arena. Carbono 14ak 35.000 urteko aintzinakotasuna ematen du baina hortik atzerako urteak ez ditu zehazten, galdu egiten da. Uranio Torio-aren frogatik egiteko troska bat aurkitzea litzateke onena, estalagimitaren antzeko elementu bat. Lurpean hori aurkituko bage-nu inguruko buztina hartu eta Uranioaren frogatik egin ahal izango genuke, 300.000 urteko aintzinakotasunera heldu ahal izango gintezkeen, behe-paleolito garaira eta horrek garrantzi gehigo emango lio-

ke Leze Txikiri, behe-paleolitoko beste bi koba baino ez daude eta Iberpenintsula osoan. Jakina, posible da aztarnategian hondamena egin dutenek troska hori aitzurrarekin aurretik eraman ahal izana, beraz, zailagoa litzaziguke kronologia zehaztea.

Ilun dagoen beste puntu bat estratigrafia da. Leze Txikiri 10 metroko maila arkeologikoak daude baina ilun daude gauza batzuk, mailen arteko kontaktua nolakoa izan zen etabar. Izan ere, 2., 3. eta 4. mailen artean nahasketa bat

dago. Azken helburua polen muestrak jasotzea da, analisiak egin eta orain arteko datuak zehaztea. Polen analisiaren bidez garaiko klima, landaretza, fauna etabar jakin dezakegu. Esandako puntu ilunak aurrez aztertuta daude baina kontraesanak daudenez oraingo metodologia erabiliz analisiak errepikatuko ditugu.

— Kanpotar asko etorri izan da Leze Txikira muestrak jasotzera. Zergatik?

— Arkeologiaren munduan gaur egun dagoen eztabaida sutsuenetarikoa eta garrantzitsuenetarikoa baten aztarnak Leze Txikiri aurkitu dira. 2.000 edo 3.000 urteko epean, historiaurreko 32.000 eta 36.000 urtean artean, Neanderthal gizakia desagertu eta gaur eguneko gizakia agertu zen. Horren inguruan teoria asko dago, gai eztabaidatua da eta oso toki gutxitan aurkitzen dira tarte labur horretako aztarnak, Leze Txiki horietako bat da. Atzerriko jende asko etorri da muestrak jasotzera ikerketak egiteko eta makina bat artikulu idatzi da Leze Txikiri buruz mundu osoko hizkuntza askotan. Kanpoko jendeak ondo daki zer den Leze Txiki; dirudienez, guk baino hobeto.

Belem **Portugaletik inportazioak!**
Prezio ezin hobeak!
Konfidantza osoaz!

Olarte, 6 Tfnoa: 79 25 71 ARRASATE
 Herriko Plaza, 10 Tfnoa: 79 59 78 ARETXABALETA

ESKORIATZAKO MAGISTERIO ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinerazten du:

1996-97 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela.

Espezialitateak:

- HAUR HEZKUNTZA
- HEZKUNTZA BEREZIA
- ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA


Informazioa: IRAKASLE ESKOLA
 Tfnoa: 71 41 57
 ESKORIATZA

• ESAERA •

“Zintzoak batzuetan
gezurretan aritzeea
behartuta daude... eta
hainbatetan oso gustora
egiten dute”


WILHELM BUSCH

• JEROGLIFIKOA •



...etxe handia!

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Esther, AEDko dinamizatzaila. 9. Salbatzearen ekintza eta ondorioa. 10. Zabalera txikia duena. 11. Dena, guzti. 12. Gaez egiten den lana. 14. Nor pluralean. 15. Atarte. 17. Erdietsi. 19. Amerizioa. 20. Kulpa. 21. Italiako ibairik garrantzitsuenak.

Bertikalak 1. Asetzeko gogoia. 2. Beti iraungo ez duena. 3. Altxera handikoa. 4. Obulazioa izan. 5. Musika-eskalako seigarren nota. 6. Amama. 7. Gauzei buruz galdetzeko hitza. 8. Egilearen izenik ez duen idazkia. 13. Ardura Trinkoen Unitatea. 16. EEBBetako beltzen musika-estiloa. 18. Alfabetoko hemeretzigarren letra errepikatuta.

• HOROSKOPOA •

Aries Zure lagunak ahozabalik utziko dituzu letxuga pastela prestatuta.

Taurus Ikasitakoarekin zaila izango zaizu iraileko azterketak gainditzea.

Gemini Jendeak zutaz pentsatzen duenak burukomina eman beharko lizuke.

Cancer Internet sarean sartu dute zure izena, bazenekien?

Leo Parrandan ibiltzea bukatu da. Orain lanean hasi.

Virgo Zure gorputzeko tenperaturak goruntz egingo du.

Libra Txoritxo batek esan dit udan formal ibili zarela.

Scorpio Gauzak nola dauden ikusita lan bila hasi beharko duzu.

Sagitarium Benetan uste duzu jende gutzia zuri begira dagoela?

Capricorn Itxura ona duzu baina zerbait gehiago ere bazara.

Aquarius Ez kasurik egin etxe-koen aholku merkeei.

Piscis Askotxo jan duzu udan. Zer moduz dieta egitea?

Urriak 6, Kilometroak Elgoibarren

Eta egun hori iritsi artean ARRASATE PRESSEK jokutxo bat proposatu nahi dizuete: **Kilometroak 96ko logotipoa izkutatu dugu** aldizkariaren orrialde batean. Aurki ezazu, eta kupoitxo bat bete adieraziz non dagoen. Asmatuz gero, Kilometroak 96k salmentan duen materiala zozketatuko dugu, trukean **2.000 pezetako balioa** duten agiriak emanaz hain zuzen ere.

Banoa, Banixe,
Euskaraz, bai horixe!




Izen-abizenak:.....

Telefona:.....

Zenbatgarren orrialdean dago logotipoa:.....

ARRASATE
PRESS
Azoka kalea, z/g
20.00 ARRASATE

TELEBISTAREN TXOKOA



Urrira arte albistegiak ATBn

Arrasate Telebistakoek ere lanurte berriari ekin diote. Irailaren 2an hasi ziren emisioak albistegiarekin eta urrira arte horixe izango da ikusgai. Dena den urrian ATBko programazio

berria hasiko da eta hori bai, programa eta aurpegi desberdinak izango dira herriko telebistan. Urria heldu arte, herriko albisteak jasoko dituzue telebistan ohiko orduetan.

ARRASATE IRRATIA (FM 107,7)

Astelehenetik ostiralera bitartean Kerizpean saioa Arrasate Irratian, egunero goizeko 9etatik 11etara. Saioaren barruan egunero albisteak, elkarrizketak, ipuina, konexioak Euskadi Irratiarekin... eta saio berezia, 10.25ean:

- Astelehena, diskoen eta liburuen aurkezpena.
- Asteartea, baserria.
- Asteazkena, kale inkestak.
- Osteguna, trukoak eta zinea.
- Ostirala, jaiak eta Arrasate Press.

SOLUZIOAK

Horizontala: 1. Apaolaza, 9. Salbarmen, 10. Estu, 11. Oro, 12. Gaultan, 14. Ak, 15. Aiant, 17. Lortu, 19. Am, 20. Erri, 21. Po. **Bertikalak:** 1. Asegale, 2. Pasakor, 3. Altu, 4. Obulatu, 5. La, 6. Armona, 7. Zer, 8. Anoni- mo, 13. ATU, 16. Kap, 18. Rt. **Jeroglifikoak:** Hamabi gela.

PROGRAMAZIOA



6 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan. **Berriak**

9 Asteazkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan. **Berriak**

10 Asteazkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan. **Berriak**

11 Asteazkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan. **Berriak**

12 Asteazkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan. **Berriak**

13 Asteazkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan. **Berriak**

YOSU HERMIK
VENTANAS AISLANTES

Kalitate gorena leihuetan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

AMI oinetakoak

OINETAKOEN AUTOZERBITZUA
Olarate, 9 • ARRASATE • 77 14 65

Etxebizitzak

- **Hiru lagun behar dira pisua osatzeko.** 12.000 pta. Jon. Tfnoa: 65 52 98.
- **Pisua behar dut Arrasateko erdialdean** ahalik eta azkarren. Tfnoa: 79 78 10.
- **Bost ikasleendako pisua** bilatzen gabiltza. Tfnoak: (94) 456 47 46. Urko eta (94) 491 14 74 Ekain.
- **Erdialdean pisua alokatzen da.** Guztiz jantzita. Tfnoak: 79 35 50 eta 43 12 91.
- **Pisua behar dut Arrasaten.** Tfnoa: 79 50 11. Mireia.
- **Altamiran bi garaje plaza alokatzen dira.** Bate bestearen ondoan daude. Eta Maixor etxean beste bi plaza alokagai. Tfnoa: 77 03 22.
- **Garagartzan dagoen Elizondo** taberna alokatzen da. Tfnoa: 79 15 99.
- **Pisu bila nabil eta pisu hori** osatzeko jendea ere behar dut. Aretxabaletan edo Eskoriatza. Abuztutik aurrera. Tfnoa: 10 73 93.
- **Pertsona bat behar dugu pisua osatzeko.** Itziar. Tfnoa: 79 11 85.
- **Baserrira salgai Elgetatik gertu.** Tfnoa: 12 09 67 edo 12 71 10.
- **Pisua alokatzen zaie ikasle edo irakasleei.** Tfnoa: 79 61 95.
- **Pertsona bat behar dugu pisua osatzeko.** Tfnoa: 81 22 06. Saioa.
- **Iruñan pertsona bat behar da** pisua osatzeko. Tfnoak: 79 71 06 edo (948) 17 17 67. Leire.
- **Leioan pisua osatzeko bi neska behar dira.** Tfnoak: 79 35 66 edo 79 30 61.
- **Erdialdean garaje itxia alokatzen da** prezio onean. Tfnoa: 79 42 13.

Lana

- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 48 12.
- **BUPEko 2. mailako latineko eskolak** hartuko nituzke. Tfnoa: 79 20 24.
- **Pertsona euskalduna behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 77 05 22. Iluntzean deitu.
- **Marrazketa geometrikoko** klase partikularrak behar ditugu. Tfnoa: 79 06 60 edo 79 93 04.
- **Neska gertu etxeko** garbiketarako egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 77 07 58. Marisol.
- **Esperientziadun neska umeak** edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 31 44. Mirian.
- **Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 77 05 22.
- **Taberna edo jatetxe baten lan egingo nuke** egun erdiz. Tfnoa: 79 23 58. Rosa.
- **Bi emakume prest** umeak zaindu, etxeak edo tabernak garbitu eta tabernetan lan egiteko prest. Tfnoa: 79 67 30. Toñi eta Mirian.
- **Emakume euskaldun batek asteburutan** eta jai egunetan pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 76 37 80. Gauez deitu.
- **Asteburuetan furgoneta duen** autonomo baten beharrea gaude. Ikuskizunekin zerikusia. Tfnoa: 79 67 25.
- **Igeltseroa, iturgina, elektrikaria** eta altzairi muntatzaileak behar ditugu. Tfnoa: 907-31 75 29. Dei egin goizeko 9.30etatik gaueko 8etara.
- **Andra gertu umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 28 80.
- **Almeneko ikasle batek** fisika eta kimikako kla-

seak emateko irakaslea behar du. (3.REM mailarako). Tfnoa: 77 01 91.

• **OHoko euskarazko klase partikularrak** hartuko nituzke neure etxean. Tfnoa: 79 27 48.

• **Emakumea gertu etxeetan lan egin** edo umeak zaintzeko. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 27 48.

Salerosketak

• **Peugeot 505 Turbo Diesel Covadonga** modelo-koa salgai. SS-F. Tfnoa: 79 94 11.

• **200 litroko akuario berria** salgai. Tfnoa: 79 04 35.

• **Kanpin-karro denda erosiko nuke.** 74 05 37. Mila.

• **Kanpin-karro denda salgai.** Tfnoa: 79 65 70.

• **Auto berri baten gaineko lehiatila salgai,** baita ere Galaxy Jupiter emisorea eta Panasonic erantzungailu automatikoa. (908) 57 64 83. Josean.

• **Honda CBR 600 motoa salgai.** Bidaiatzeko gertu. Berri berria dago. Tfnoa: 77 09 85. Txomin.

• **Kawasaki ZZR 600 motoa salgai.** 2.900 km. ditu. ITVa 98 urtera arte pasatuta. Berri berria. Kantatua opari. Tfnoa: 908-57 64 83.

• **Suzuki CSX 750 R' 91 motoa salgai.** Oso egoera onean. Yoshimura tubarroarekin. eta kubieta berriekin. Tfnoa: 77 13 91. Gari.

• **Citroën BX 19 GT autoa salgai.** OR-G. Prezioa: 150.000 pta. Tfnoak: 79 92 31 eta 79 23 26. 8etatik aurrera.

• **Estreinatua gabeko Lur Hiztegi Enziklopedikoa** salgai. Tfnoa: 79 87 47.

• **Oso egoera onean dagoen Seat Ronda 1.2** salgai dago. 13 urte ditu. SS-S. Prezioa: 155.000 pta. Tfnoa: 79 09 52.

Aste Gazte

Bekak

- 96-97 ikasturtean unibertsitate maila eta goi-mailako beste ikasketa batzuetarako (dantza, arte dramatikoa...) beken deialdia. Epea: urriak 15.
- Soin Hezkuntzako Euskal Erakundeak (IVEF) 96. urteari dagozkion lankidetzarako beketarako deia egin du. Bi motako bekak egongo dira: a) beka bat euskarren arloan laguntzeko. b) bederatziko beka Erakundeak egindako programan laguntzeko. Epea: urriak 4.
- Bergarako Udalak Justo

Garate Arriola beka deitu du, Euskal Herriko Historiari buruz ikerketa lanak egiteko. Hizkuntza: euskaraz. Baldintzak: diplomatura, 35 urte baino gutxiago. Diruzenbatekoa: 935.000 pta. Epea: irailak 1-30.

Ikastaroak

- Durangoko "Sartuk" bi ikastaro antolatu ditu langabetuei zuzenduta: a) Teilatuen jartzea. Izenematea: azaroak 8. b) Bulegoko aplikazio informatikoak. Epea: Azaroak 15.
- Donostiako "Sartuk", berriz

beste bi hauek: a) Iturgintza. Izenematea epea: urriak 15. b) Metal arotzgia. Izenematea: azaroak 15.

• Donostiako Nazaret Zentroak, langabetuei zuzenduta, "Sistema informatikoen administratzailea eta telezerritzaileak" ikastaroa antolatu du. Matrikula: 10.000 pta. (berreskuragarri). Izenematea: irailak 28.

Lehiaketak

- "Gazteak eta Intsumisioa" VII. argazki lehiaketa. Bi kategorioa: a) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak. b) 19-35 urte bitarteko edozein. Zuri-beltzean zein koloretan. Epea: urriak 11.

"Adinaren tragedia ez da zaharra izatea, baizik eta gazte izatea eta jendeak ez ikustea"

ANDRES SEGOVIA.
MUSIKALARI
ESPAINIARRA

Informazio gehiago:
GAZTE
ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65



VENTANAS SAN MIGUEL

Ventanas San Miguelekin...
Denean irabaziko duzu.


Erosotasunean irabaziko duzu.

Aurrezpenean eta energian
irabaziko duzu.

Isolamenduan irabaziko duzu.

Konfortean irabaziko duzu.

Iturriotz, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 78 10



*Etonki gurena!
Denean irabaziko duzu!*



PARDO estetika zentrua

* **Solarium-ean eskaintza berezia.**

~~LEHEN~~

~~11 sesio~~

~~12.000 pta.!!~~

ORAIN

11 sesio

8.000 pta.!!

**Zergatik galdu oporretako kolorea?
Gure Solarium-a, dutxa eta guzti,
udako kolore ederra mantentzeko
tokirik aproposena!**

*Eskaintza hau martxoaren 31an amaitzen da.

Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan ☎: 79 52 17 ARRASATE



**Ez galdu
aukera
hau!**

Truke Operazioa

Amuebladora Mondragonesa

EKARRI ZURE
KOLTXOI ZAHARRA...



...ETA 10.000 PTA.
ARTEKO DESKONTUA
izango duzu zure Atsedeen
Sistema Berrian

FLEX



Loa kenduko ez
dizuten prezioak.
Zatoz eta galdetu!

grupo



Amuebladora
Mondragonesa



a. eme. interiores, Garibai, 9 ARRASATE
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ARRASATE